



EAJ-PNV Irungo Udal Taldearen buletina 2014-02-28

Berri nabarmenak



Abian da Xabier Iridoyren blog berria

Xabier Iridoyren blog berria martxan dago jada. Bertan, EAJ-PNV udal taldeko bozeramaileak egindako hausnarketak jasotzen dira argazkiz eta bideoz lagunduta. Udal politika eta politika orokorra mintzagai izango baditu ere, hainbat gai buruzko gogoetei eta oroitzapenei tokia eskainiko die. Horren adibide dugu ikastolan igaro zituen ikasle garaietara hurbilduz, Txingudi Ikastolaren 50. urteurrenaren harira idatzitako posta.

Hori guztia eta gehiago <http://xabieriridoy.blogosfera.gipuzko.com> helbidean izango duzue.



Ahalik eta denbora-epe laburrean kirol instalazioen leku-aldatzea ahalbidetuko duen alternatibaren aldeko apustua egiten du EAJ-PNVk

Miguel Angel Paezek Plaiaundiko kirol instalazioen leku-aldatzeari buruz egindako adierazpenei erantzun zien Irungo EAJ-PNVk joan den otsailaren 12an eskaintako prentsurrekoan. Jose Corchon batzarkide eta zinegotzi jeltzaleak esandakoaren arabera, «baieztapen okerrak eta errealitatearekin bat ez datozenak» dira. «Talde sozialistak Batzar Nagusietan aurkeztutako ebazpen proposamen bati pasa den astean zuzenketa gehigarria egin zion EAJ-PNV batzarkide taldeak, proposamen horrek joan den abenduaren 27ko Udaltaldean adostu ziren hiru puntuak fidelki jasotzen ez zituelako» azaldu zuen Corchonek. Zuzenketa bitartez, Plaiaundiko kirol instalazioak lekuz aldatzeko kokaleku berri bat ahalik eta azkarren bilatzeko eta aurkezteko konpromisoa bete dezan eskatzen dio Irungo Udaltalde abertzaleak Batzar Nagusietan.

Joan den abenduaren 27an gehiengo zabalarekin onartutako mozioak Udaltaldeko alderdi politikoei leku-aldaketarik azkarrena egiteko aukera eman lezakeen tokia bilatzeko konpromisoa jasotzen zuela gogora ekarri zuen Corchonek. «Hain zuzen ere, konpromiso hori ez zen aipatzen ekimen sozialistan eta guk kontuan hartu beharreko puntu garrantzitsu bat dela uste dugu» jarraitu zuen. «Zazpi urte inguru daramatzagu kirol instalazioen leku-aldatzearen gaiarekin geldirik eta aurrera egiteko unea dela deritzogu» gaineratu zuen.

«Hortik aurrera, Paez jaunak egin dituen baieztapenek haserrealdi berri bati besterik ez diote erantzuten» adierazi zuen batzarkide eta zinegotziak. Gainera, azpimarratu zuen EAJ-PNVk inolaz ere ez duela ukatu gainerako administrazioei beren konpromiso finantziarioa berrestea eskatu behar zaienik, ezta Irungo talde politiko guztien artean lortutako adostasuna baztertu duenik ere. «Horregatik, gure udal taldeak abenduko mozioa babestu zuen eta Batzar Nagusietan sozialistek proposatu dituzten puntuekin ere ez du desadostasunik erakutsi» azaldu zuen. Hala ere, EAJ-PNVk uste du Irungo Udaltalde eman behar duela lehenengo urratsa eta gobernu sozialistak gainerako erakundeei eskatzen dien inplikazio bera erakutsi behar duela.

Halaber, talde jeltzaleak kontraesana ikusten du Paezen baieztapenetan. «Alde batetik, kirol instalazioak ahalik eta denbora-epe laburrean lekuz aldatzea bermatuko duen kokagune berri bat bilatzeko, 2007an talde politiko guztiek batera aztertu zituzten zazpi alternatibak

birpasatzeko konpromisoa hartu zuen Santano jaunak pasa den abenduan; eta, bestetik, Paez jauna ateratzen da esanez Zubieta dela erabakitako kokalekua. Zertan geratzen gara?» galdetu zuen Corchonek. Zubieta udal gobernuaren aukera finkoa izanda edo beste alternatiba bat aztertu behar izanda ere, egia dena zera da, zazpi urte hauetan ez dela ezer egin. Non egon da Santanoren gobernuaren ekimena? Gai honekiko ez du inongo interesik erakutsi. Horren harira, baloiak ez kanpora botatzeko eta, behingoz, udal gobernu Plaiaundiko kirol instalazioen leku-aldatzean inplikatu dadila eskatu dio Corchonek Paezi.

Era berean, Zubietako aukera epe laburrean ezinezkoa dela adierazi zuen Corchonek, aurrera eramane behar diren izapide konplexuak direla eta. «Ahalik eta denbora-epe laburrean kirol instalazioak lekuz aldatu nahi baditugu, hori ez da aukera baliagarria». Paezek, berriro ere egia huts eginez, EAJren ahotan jarri du Zubietak ezin duela atera eta hori deitoratu egiten dugu. «Berriro diogu epe laburrean Zubietak ezingo dituela kirol instalazioak hartu, eta horrek ez du esan nahi Zubieta alternatiba bezala baztertu behar dela adierazi dugunik» azaldu zuen. Halaber, Plaiaundiko kirol instalazioak eremu berri batean kokatzeko alternatiba desberdinak aztertzeko batzordea deitu dezan eskatu zion EAJ-PNVk alkateari.

Bestalde, zuzenean PNV "bazterrak nahasteaz" akusatu aurretik, bere baieztapenak zertan oinarritzen dituen argudiatu eta azaltzeko eskatu zion Xabier Iridoy udal bozeramaileak Paez jaunari. «Guri, behintzat, Plaiaundiko kirol instalazioen gaian aurrera egiten ahalegintzea edo Txingudiko Badiako hiru udalerririk lotzeko oinezkoentzat eta bizikletentzat bidea proposatzea ez da bazterrak nahastea, proiektu horiek, herritarren aldetik onarpen handia izateaz gain, auzoen arteko mugikortasuna eta lotura hobetzeko, eta irundarrei Txingudiko badiak gozatzeko aukera eskaintzen diotelako» baietsi zuen. Azkenik, Irungo EAJ-PNVk, bere hiri proiektuaren baitan, eta irundarren ongizatea hobetzeko, horrelako proposamenak egiten jarraituko duela azpimarratu zuen bozeramaile jeltzaleak.



Iridoy: «Udalean euskararen erabilera sustatzeko, ezinbestekoa da hitzetatik ekintzetara pasatzea»

Otsaileko Udalbatzan jorratu zen Irungo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren inguruan, EAJ-PNV taldeak bere jarrera erakutsi nahi izan zuen. Xabier Iridoy bozeramaileak azaldu zuenez, Irungo Udalak bere jardunean duen hizkuntza politikaren nondik norakoak; helburuak, bitartekoak, epeak; eta jarraibideak jasotzen dituen dokumentua da plan hori. «Bat egiten dugu aurkeztutako txostenarekin eta horrekin lortu nahi diren helburuekin, udalean euskararen erabilera bermatzeko eta areagotzeko ematen diren urratsen alde baikalde» adierazi zuen zinegotzi jeltzaleak. Hala ere, «ezinbestekoa da idatzita dagoena ekintzetan bilakatzea, askotan asmo hutsean geratzen baitira paperean jasotako ideiak» jarraitu zuen.

«Euskararen normalizazioan ibilbide luzea dugu oraindik egiteko udaletxe barruan» adierazi zuen zinegotzi jeltzaleak, eta baieztapen hauek egiteko Irungo Udaleko langileen artean egin den azterketa komunikatiboaren emaitzetan oinarritu zen. Bertatik hainbat ondorio atera dira: alde batetik, euskararen erabilerarik baxuena langileen eta politikarien arteko harremanetan ematen da, azken hauen ondorioz. Bestetik, langileek euskaraz gehiago egiten dute udaletxetik kanpo beren harreman eta egunerokotasunean lanean baino. «Aipatutako datu hauek guztiek Udaletxeak bere langileak erdaldundu egiten dituela erakusten dute, eta hori ezin dugu onartu» adierazi zuen Xabier Iridoyk.

«Benetako ahaleginak egin behar ditugu udal honetan euskarari merezi duen lekua emateko» aldarrikatu zuen bozeramaile jeltzaleak. EAJ-PNVk Irungo Udalean euskararen erabilera sustatzearan alde lanean jarraituko du. Horren ildotik, 2014ko aurrekontuetarako bere taldeak egindako proposamena ekarri zuen gogora Iridoyk. «Eguneroko lanean erabiltzen ditugun hainbat aplikazio informatiko euskaraz jartzeko eskaera egin genuen, langileei, askatasun osoz, tresna informatikoen erabilera zein hizkuntza ofizialetan egin nahi zuten aukeratzeko helburuarekin» azaldu zuen. «Udalbatza horretan udal gobernuak langileei aukera hori eskaintzeko konpromisoa hartu zuen, baina ez du esandakoa bete. Gainera, aurreko plangintzan, jada, jasota zegoen irizpide hori. Berriki udal langileen ehun ordenagailu baino gehiago aldatu dira aplikazio informatikoak euskaraz jartzeko aukera eman gabe» jarraitu zuen. Horren harira, gobernu sozialistak euskararen aurrean duen jarrera deitoratu zuen Iridoyk, ez baitu benetako konpromisorik ezta borondaterik ere erakutsi. «Beren interesa itxura hutsean geratzen da» baieztatu zuen bozeramaile jeltzaleak.

Azkenik, euskararekiko konpromisoa eguneroko jardunean erakusten dela azpimarratu zuen Xabier Iridoyk, eta dokumentuak jasotzen duena betetzeko benetako inplikazioa eskatu zion



EAJ-PNV batzarkide taldeak Plaiaundiko kirol instalazioentzat kokaleku berria bilatu eta aurkezteko eskatu dio Santanori

Gipuzkoako Batzar Nagusietako EAJ-PNV taldeak joan den otsailaren 6an erregistratutako zuzenketa baten bitartez, Plaiaundiko kirol instalazioak lekuz aldatzeko kokaleku berri bat ahalik eta azkarren bilatzeko eta aurkezteko konpromisoa bete dezan eskatu dio Santanoren udal gobernuari. «Proiektuak aurrera egin, eta Irungo Udalez gain, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bere finantziario konpromisoa bete dezaten, guztiz beharrezkoa da udal gobernuak kirol instalazioak nora eramango diren erabakitzea eta zehaztea».

Talde jeltzaleak gogora ekarri du 2007an hainbat alternatiba aztertu zirela kirol instalazio berriak kokatzeko. Azkenean, mahaigaineratutako zazpi kokaguneetatik aukera posible bakarra Zubietakoa zela ondorioztatu zen.

Sei urte baino gehiago pasa dira azterketa eta ondorioztapen horietatik, eta gaur egun instalazioen leku-aldatzea errealitate bilakatzetik urrun dago, 2007an planteatutako aukera posible bakarra Zubietakoa; epe laburrean ezingo delako gauzatu, eta ordutik alternatiba gehiago ez direlako aztertu.

Hori dela eta, jeltzaleek azpimarratu dute denbora honetan guztian prozesua geldirik egon dela gobernu sozialistak kirol pisten kokaleku berriaren inguruan urratsik eman ez duelako. EAJ-PNVk adierazi du erakunde desberdinek konpromisoak hartu dituztela Plaiaundirekin, baina proiektuak aurrera egin dezan eta konpromiso horiek bete daitezten, ezinbestekoa dela kirol instalazioentzat eremu berri bat bilatzea eta zehaztea. «Gai honetan aurrera egiteko eta bere garaian aztertu ziren zazpi aukerak edo alternatiba berriak berriro ere mahai gainean jartzeko unea da, lehen bailehen kokaleku berria erabakitzeko» adierazi du Jose Corchon batzarkide eta zinegotzi jeltzaleak.

Azkenik, EAJ-PNVk berretsi nahi du Plaiaundiren garapenaren aldeko apustua egiten duela, eta horregatik, kirol instalazioen leku-aldatzeaz gain, Jaizubia eta Plaiaundiko hezeguneak hobeto lotu ahal izateko, Txingudiko Planaren eguneratzea eskatu dutela Batzar Nagusietan.

Buletin honetan ere...



Irungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean murgilduta

Azken asteotan Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aztertzen gabiltza bere behin behineko onarpenerako datorren martxoaren 13rako dago aurreikusia Udalbatza. EAJ-PNVren ustez, Irunek nortasun eta izaera definituko hiri baten eredu izan behar du, hazkunde lasai eta jasangarria duen hirigintza bati erantzunez. Hazkunde horrek ez du zertan kanpoko alderakoa bakarrik izan behar; barrura ere hedatu behar du hiriak, bertako eremu degradatuak kalitatezko hirigintza baterako apustuan bilakatuz. Horren harira, Irunek ingurumenarekiko errespetuaren aldeko apustu garbia egin behar du, bereziki eremu babestuen eta landa eremuen alde, garapena belaunaldi berrientzat etorkizuneko bermea izan dadin. Ezin diogu bizi kalitatea hobetzeari uko egin, komunikabide eta garraio hobe eta modernoagoak, eta kirol, kultur eta aisialdirako ekipamendu berriak proposatuz.

Testuinguru horretan, 2014-2030 urte bitarterako HAPOan aurreikusten den etxebizitzaren eraikuntzari nola ekingo diogun zehaztu behar da. Gure aburuz, alderdi kuantitatiboa aurreikusteaz gain, ezinbestekoa da Plan Orokorra ondo programatzea eta etapa desberdinetan garatzea.

Alderdi kuantitatiboan, etxebizitzaren eraikuntzari dagokionez, hirigintza garapenean geldialdirik egon ez dadin, malgutasun nahikoa izan behar dugula uste dugu, une bakoitzean dauden etxebizitza beharrei erantzun ahal izateko. Plan Orokorrean 7.100 etxebizitza aurreikusten dira. Horrek lurzoru eskaintza handia eta beren prezioak etxebizitzak baztertzaileak ez izatea ahalbidetuko du. Hala ere, aurki onartuko diren Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako ildo berriek gehienezko etxebizitza kopurua 7.100etik behera ezartzea aurreikusten da. Arrazoi bat gehiago etxebizitza kopurua denboran nola garatu zehaztuko duen kronograma baten beharra aldarrikatzeko.

Laburbilduz, Irunen 2030 urte arteko etxebizitzaren garapenaren ikuspegia proiektatu nahi badugu, funtsezkoa da ekintzak eta lehentasunak jasoko dituen egutegi batez lagunduta egotea, eta hori da, hain zuzen ere, eskuartean dugun dokumentuan ikusten ez duguna.



Juan Mari Aburtoaren hitzaldia Irungo Batzokian

Juan Mari Aburto Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Enplegu eta Gizarte Politikako sailburuak, bere departamentuak urte honetan zehar hiru arlo horietan egin duen lana errepasatu zuen joan den otsailaren 6an Irungo Batzokian eskainitako hitzaldian. «Gure departamentuaren bitartez, pertsona guztiak, dauden egoeran daudela ere, ekintza politikoaren erdian kokatzea nahi dugu. Bizitza-proiektua aurrera eramateko, pertsonak behar jakin batzuk dituzte, funtsean bi motatakoak: lana, enplegua baldin badugu, eta etxebizitza baldin badugu, eta harreman sozialeko mundu bat gehitzen badiogu, gizarte honetako kide gara eskubide guztiak. Haatik, lanak edo etxebizitzak kale egiten badigu, zailtasun handiko egoera batean aurkituko gara; milaka eta milaka familia aurkitzen diren egoeran. Orduan gizarte babesa eta gizarte zerbitzuen sistema sartzan da jokoan» azaldu zuen.

Duela urte bat Eusko Jaurlaritzak aurkitu zuen aurrekontu-egoera zaila ekarri zuen gogora, eta, aldi berean, zerbitzu berak mantenduz jende gehiagori erantzuna emateko beharra azpimarratu zuen. «Zailtasun handiko momentua bizi dugu. Pertsonen duintasunak ez du preziorik eta horregatik aintzat hartu behar da beti, oparoaldian eta krisi garaietan» nabarmendu zuen. Halaber, Lehendakariak itxura sozial nabariko gobernua edukitzeko erabakia goraiatu zuen.

Hitzaldiaren aurretik, sailburua EAJ-PNVko zinegotzi taldearekin eta Uri Buru Batzarreko kideekin elkartu zen etxebizitzari eta enpleguari buruz hitz egiteko.

(Ikus prentsa oharra hitzaldiari buruz gehiago jakiteko)

Agerreko bizilagunek bizi duten ziurgabetasun egoerari irtenbidea emateko mozioa sinatu du EAJ-PNVk

Agerre Kaleko, Agerre Txiki Baserriko eta Gevara Borda etxeko bizilagunek mozioa aurkeztu zuten otsaileko Udalbatzan, azken 40 urteetan bizi duten ziurgabetasun egoerari irtenbidea emateko, premiaz mahai bat eratzeko eskatuz. Mozioa oposizioko taldeek sinatu zuten, eta Udalbatzan udal gobernuak ere bat egin zuen.

Eremu horretako bizilagunek 40 urte baina gehiago daramatzate ziurgabetasun egoeran ordenazioz kanpo biziz. Bitartean, eta urte askoz, inguruan kokatutako industrien eragindako eragozpenak pairatu dituzte beren etxeetatik oso hurbil (zaratak, usain txarrak, hautsak, trafiko handia). Industria horietako batzuk lekuz aldatu direnean, eraikin horiek hondatu egin dira, eta bazterkerian bizi diren pertsona marjinalak okupatu dituzte, horrek ekarri dituen bizikidetzaz arazoekin.

Bestalde, ordenazioz kanpo bizitzeagatik ezin izan dute beren eraikinen mantenua zuzena egin eta, ondorioz, beren etxeak hondatu egin dira. Gune guztian ez dira eguneroko garbitze-zerbitzuak egin, edukiontzia egokitu, ezta inguruko kaleak urbanizatu ere. Baina Irungo edozein hiritar bezala, ondasun higiezin zerga eta zaborren zergak legez ordaindu dituzte beren inguruaren hondamendia ikusten zuten bitartean. Egun, eta egoera honen aurrean, erantzun ofizialik gabe jarraitzen dute, eta auzokideei ez zaie irtenbiderik eskaini ofizialki.

Arrazoi hauek guztiak direla eta, premiaz elkarrizketa mahai bat eratzeko eskatu dute, bertan auzokideen ordezkariak, udal gobernuak, oposizioko taldeek eta dagokien elkarteek parte hartuko dutelarik. Pairatu duten prozesu mingarri guztiaren informazio zehatza nahi dute eta denen artean banakako soluzioak eta irtenbide kolektiboak bilatzeko lan egitea eskatzen dute.

Ba al zenekien...

Besteek aurkeztutako ekimenak bere egiten ditu alkateak

Ez da aurreneko aldia alkateak beste talde politiko edo elkarteek aurkeztutako proposamenak bere egiten dituenak. Azkenekoa duela egun batzuk izan zen, Artiako Pintor Berroetako aparkalekura egindako bisitaldian. EAJ-PNV Udal Taldeak 2012ko aurrekontuetarako mahai gainean jarritako proposamena da, eta une hartan ekimena aurrera ateratzeko udal gobernuak oztopoak besterik ez zituen jarri. Noski, orduan ez zen gobernu sozialistaren proposamena.

Santano jaunak adierazten duen bezala, Pintor Berroetako aparkalekua handitzeko eta Zurbaran kalera irteera egiteko beharra bizilagunek 2012ko urtarrilean helarazi bazioten, zergatik ez zuen urte hartako martxoan EAJ-PNVk esku-hartze hori egiteko aurkeztu zuen proposamena onartu? Eta, Artiako bizilagunek eskaera hori egin bazioten... zergatik gastatu dira 10.500 euro parte hartze prozesu batean bizilagunei zer nahi duten galdetzeko?

Hauxe da EAJ-PNVk aurkeztutako proposamena ez onartzeko udal gobernuak denbora eta dirua alferrik gastatzeko duen modua.
